

**FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK EUSKAL HERRIAN.** Jean-Pierre Chevenementek emaitza oso txarrak eskuratu ditu Euskal Herrian, eta ezker muturrak, aldiz, Frantzian baino portzentaia handiagoak bildu ditu, hain segur abertzale anitzi esker.

# Le Penek ez du Frantzian bezalako emaitza onik lortu Ipar Euskal Herrian

Jacques Chirac eta Lionel Jospin nagusitu dira Frantziako lehendakartzarako bozen lehen itzulian

Eneko Bidegain | BAIONA


Eskuin muturrak ez du Frantzian bezainbat arrakasta Ipar Euskal Herrian. Jean-Marie Le Pen ultrasestuindarra laugarren postuan ezarri zuten bertako hautesleek. 13.140 lagunek bozkatu zuten, halere, FNko buruaren alde, hots hautesleen %9,69k. Le Penek Frantzian eskuratu %17,2etatik urrun da, baina Zuberoan izan ezik (Maule eta Atharratzeko kantonamenduetan 20 boz galdu zituen eta borzgarren postuan gelditu), Ipar Euskal Herri osoan goratu zuen bere emaitza. Gora-kada nabarmena Lapurdi barnealdean gertatu da. Ezpeletako kantonamenduan duela zazpi urte baino 141 boz gehiago bildu zituen; Uztaritzekoan 143; Hendaiaikoan 145; Miarritzen 138. Baionan, aldiz, 23 boz gehiago baizik ez zituen lortu.

Eskuin muturra igo da Ipar Euskal Herrian. Ukaezina da. Le Penen bozei Bruno Megretnak ere gehitu behar zaizkie: 1.326. Duela zazpi urte Megretek Le Penekin bat egiten zuten. Horrez gain, Lapurdin, FN hirugarren indar politikoa da. Ez da gutxiestekoa. Oro har, Ipar Euskal Herriko emaitzak ez baldin badu Frantziakoa bezain larria iduri, lehendik ere, eskuin muturraren alde Frantzian baino askoz gutxiago bozkatzeko zela-koda da.


**Jacques Chirac beti nagusi, barnealdean bereziki**

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa oso herrialde kontserbadoreak dira. Eskuineko hautagaiak, berriz, ere aise nagusitu zitzaizkien ezkerrekoei, bozen %58,12rekin. Lehen postuan, sorpresarik ez: Jacques Chirac zen hautagai bozkatuena. Bozen %23,18rekin, Frantziako batez bestean baino ia lau puntu gehiago lortu zituen. Zuberoan ez hainbertze, baina duela zazpi urte ez bezala, lehen indar gisa azaldu zen, Jospinekin 150 bozen aldearekin. Nafarroa Beherea da, bere-


**Lehen itzuliko emaitzak Ipar Euskal Herrian**



**Herrialdeka**



**Hautagai nagusien boto bilakera**



**JACQUES CHIRAC**

Betiko arrakastari eutsi dio, Nafarroa Beherean bereziki. Zuberoan lehen postua lortu du, lehen ez bezala

**LIONEL JOSPIN**

Bigarren postuan bada ere, Frantzian bezain emaitza txarra eskuratu du Departamenduaren aurka azaldu denak

**J.P. CHEVENEMENT**

Ipar Euskal Herriko hautesleek emaitza oso txarrak eskainiz erantzun diote jakobino porrokatuari

**EZKER MUTURRA**

Frantzian baino emaitza hobeak lortu dituzte, autodeterminazioaren alde dagoen Olivier Besancenotek bereziki



GAIZKA IROZ  
Alliot-Marie RPRko lehendakaria, Donibane Lohizunen bozkatzeko.

ziki, ohi bezala Chiracen alde gehien bozkatu duena. Herrialde honetako bigarren indarra, sorpresa gutxiarekin, Jean Saint Josse ehiztarien alderdiko hautagaia zen. Zenbait herri txikitant, lehen postua lortu zuen.

Lionel Jospin bigarren postuan gelditu bazen ere, gutxi gorabehera Frantziako proportzio berean gelditu zen, %16,12rekin. Ezkerreko bozkak ez ziren hautagai sozialistarengana joan gehienik. Arlette Laguiller eta Olivier Besancenot ezker mutu-

reko hautagaiak Frantzian baino emaitza hobeak zituzten Euskal Herrian. Besancenotek bereziki. Noël Mamère Berdeen hautagaiarentzat ere berdin gertatu zen, bozen %6,26ekin.

Pentsa daiteke Departamenduaren aldeko jendeek eta abertzaleek Jospini ez ziotela barkatu Euskal Departamenduaren aurka azaltzea, 1995ean hitzeman ondoren. Jean-Pierre Chevènement Barne ministro ohi eta hautagai oso jakobinoak porrot egin zuen, bozen